KULTURA: MIKEL URDANGARIN KANTARIA, ESKORIATZAN, GAUR /16

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko maiatzaren 9a • IV. urtea

109. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




Goienka2a
Turismo Bulegoa eta denda, Gatzagaren zerbitzurako

Barruan, zure herriko aldizkaria

BERGARA
Lanbide Heziketa bultzatzeko plana abian jarri du Adegik /7

KIROLA: OTALA-ZELAIKO KROSAREN SAILKAPEN OSOA /8



MARTXELO OTAMENDI

*"Jendeak gogo handiz dago euskarazko egunkari handi eta sendo bat edukitzeko"* /10

ASTEKO GAIA: LAN ISTRIPUAK ERREPIDEETAN /2-3

# Zazpi lagun hil dira gure errepideetan lanean

Bergara inguruko errepide nagusiak albiste izan dira azken boladan, eta ez arrazoi pozgarriengatik: hain zuzen ere, bost lan heriotza izan dira Eibar-Gasteiz autobideko Bergarako zatien lanetan, eta beste bi, herriko ekialdeko saihesbidea egiten jardun zutenean. 2000. urtean izan zen lehen istripua; eta azkena, joan den hilean.

Egoera hori "oso larritzat" jotzen dute sindikatuek, eta hainbat mobilizazio egin dituzte. Kontua da, baina, egoerak berdin jarraitzen duela. Horren aurrean, sindikatuek Foru Aldundiari, lanon sustatzaileari, eskatzen dizkiote ardurak. Foru Aldundiak, berriz, lanak egiteko kontratatzen dituen enpresei eskatu dizkie kontuak, eta segurtasunarekin duen konpromisoari eutsiko diola esan du. /2-3

- *A-1 saihesbideko lanetan, azken heriotza apirilean gertatu zen*
- *Sindikatuek ardurak eskatzen dizkiote Foru Aldundiari*


UBANE MADERA

## Erasoa UGTren kontra

Hauteskunde-kanpainaren atarian, eguaztenean, Arrasateko UGT sindikatuari lau molotov koktel jaurti zizkioten gauean, eta kalte dezente eragin. Bi bulegotara sartu ziren koktelak, eta material ugari erreta geratu zen. Edozelan ere, sindikatuko ordezkariek esan zuten erasotzaileek ez dutela euren jarduna oztopatuko. Euskadiko UGTko kide guztien babesa jaso zuten.

HAUTESKUNDEAK

## Gaur hasi da inoizko hauteskunde kanpaina ezohikoena

- *Gaur gauerdian eman zaio ofizialki hasiera kanpainari*
- *AuB eta herrietako plataformak jokoz kanpo laga dituzte*
- *Alderdi politiko gehienek aurkeztu dituzte zerrendak*
- *Maiatzaren 25era begira hainbat ekitaldi antolatu dira ibarrean*

Gaur eman zaio hasiera ofizialki batzar bagusiak eta udalbatzak aukeratzeko hauteskunde-kanpainari. Inoiz ezagutu diren hauteskunde ezohikoenak izango dira aurtengoak. Izan ere, bozketan parte hartzeko borondatea eta nahia agertu duen indar politiko bat, AuBk eta herrietako plataformek ordezkatzen dutena, jokoz kanpo utzi dute Espainiako auzitegiek, hauteskundeetan parte hartzea galaraziz.

Edozelan ere, maiatzaren 25eko bozketa egunera begira hainbat ekitaldi antolatu dituzte ibarreko indar politikoek. Debagoieneko herrietako alderdi politiko gehienek egin dituzte dagoeneko euren zerrenden eta programen aurkezpenak eta datorren astean egingo dituzte gainerakoek. /4

Diseinua, teknologia eta segurtasuna


Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
Audi

Bada konpontzeko garaia

ARALAR

DEBAGOIENA/4-5 • IRITZIA/6 • HERRIZ HERRI/7 • KIROLA/8-9 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Zazpi lan heriotz

- Bergarako A-1ean eta ekialdeko saihesbidean gertatu dira lan heriotzok
- 2000tik hona gertatu dira istripuok; azkena apirilaren 22an izan zen

LEIRE KORTABARRIA

Maiatzaren 1ean ospatu zen, mundu osoan, Lan Segurtasunaren Eguna. Debagoienean, aldarrikapen horrek berebiziko zentzua hartu zuen, azken boladan, gure ibarrean, eraikuntza sektorean gertatu denaren argitara.

Apirilaren 22an, orain arteko azken lan istripua gertatu zen Eibar-Gasteiz autobideko eraikuntza lanetan: lau langile 35 metroko altueratik jausi ziren, Bergarako Uberako saihesbide zatian, hain zuzen ere. Laurotatik bat, Vicente P.F. 34 urteko behargin galiziarra, hil egin zen hurrengo egunean, eta beste zaurituetatik beste bat larri geratu zen. Eibar-Gasteiz autobideko lanetan hildako bosgarren langilea izan zen hori, eta bigarrena hilabete bakarreko epean.

Baina eraikuntza sektoreak, eta, zehatzago esanda, errepideetako eraikuntza lanek, berri txar gehiago utzi dituzte gurean, epe laburrean: izan ere, Bergarako ekialdeko saihesbidea egiteko lanetan, beste bi langile hil ziren, 2001eko azaroan.

### EKIDIN ZITEZKEEN

Datu horiek eskuan, alarma argia piztu dute sindikatuek. Heriotza horien guztien ostean, salaketa ekintzak egin zituzten ELA, LAB, ESK eta EILAS sindikatuek, batik bat, saihesbideko lanen geldialdiak.

Ezbehar motei kasu egiten badiegu, denetarikoak izan direla ikusiko dugu. 2000ko apirilean, koadro elektrikoa konpontzen ari zen langilea hil zen; 2001eko abenduan, bi langile karbono dioxidoa zuen putzu batetik edaterakoan kutsatuta zendu ziren. Sindikatuek diote kasu batzuetan giza akatsak izan zirela medio, baina gehienetan, segurtasun neurri zorrotzagoak ipini izanez gero, saihestu izan zitekeen heriotzak izan zirela. "Adibidez, kasu batean, kutsatutako putzu batean edateagatik hil ziren bi behargin; hala ere, gure ustez, hori ekidin izan zitekeen, seinale batzuk ipinita", dio Luis Maria Arana lan segurtasun adituak.

Segurtasuna bermatzea, bai bertan lanean ari direnendako, bai eta albotik pasa behar duten gidariendako, zeinen ardura den, hori da hurrengo galdetu beharrekoa.




Sindikatuek hainbat lan geldialdi eta protesta ekintza antolatu dituzte A-1eko eta Bergarako ekialdeko saihesbideko lan heriotzak salatze

### AZPIKONTRATAZIO SISTEMA

Ardurak banatzea ez da erraza, izan ere, errepideen eraikuntza prozesua esku askok kontrolatzen duten lana da.

Errepide baten proiektua onartuta dagoenean, Diputazioak lanok enkantean jartzen ditu, eta aurkezten diren enpresen artean, hainbat irizpideren arabera, eskaintza onena egiten duenari esleitzen dizkio. Enpresa horrek, orduan, beste bat edo batzuk azpikontrata ditzake lanon alderdi bat edo beste bat kudeatu dezaten. Hala ere, Aldundia da, une oro, errepidearen sustatzailea.

Bestalde, ezbeharrak mota askotakoak izan direnez, batzuek uste dute norberaren giza akatsengatik gertatu zirela, eta erakundeek ez dutela erantzukizunik. Ez dira iritzi horretakoak sindikatuak: "Lan heriotzak izan dira. Azken baten, zazpi langile hil dira, eta Aldundia sustatzailea izanda, segurtasuna bermatzea berari dagokio, eta behar diren neurriak ipintzea. Aldundia da lanon sustatzailea, eta erantzun bat ematea dagokio", dio ELAko segurtasun arloko zuzendari Luis Mari Aranak.

### ALDUNDIAK ARDURAK ESKATUKO DITU

Gipuzkoako Foru Aldundiak honakoa azaldu du segurtasun neurrien gainean: "Segurtasunaren arloan, lan guztiek Osasun eta Segurtasun Plan bat daramate, obra horretan egin behar diren ekintza guztien arriskuak baloratu eta arrisku horiek ekiditeko. Horrez gain, Aldundiak osasun eta segurtasun koordinatzaile bat kontratatzen du aipatutako plan horretan zehaztutakoa bete dadin".

Bergarako lan heriotzen gai-

*Langileendako ez ezik, gidariendako ere arrisku egoerak izan dira A-1eko lanak direla-eta*

*Sindikatuek diote azpikontratazio sistemak segurtasunik eza mesedetzen duela*




Ez baduzu inoiz Stressless® bat probatu, ez dakizu zer den atseden hartzeaz gozatzea. Stressless®-ko besaulkien eta sofen gamak, bere teknologia aurreratuari esker, zuk behar duzun erosotasun plusa eskaintzen dizu. Eta hamar urteko bermea duen Plus Sistema™ sistema esklusiboarekin. Ekornes®-ko Stressless-ek bakarrik eskainiko dizu hori guztia, eta, beste inor bezala, zure mugimenduei egokituko da. Zure morfologiari. Zure estiloari. Baita dekorazioari ere.

* Stressless®, Ekornes® talde norvegiarraren marka erregistratua da.

Zatoz eta ikus ezazu Stressless® Confort Gunea kontzesionario ofizialean:

Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atseden Etxea
Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24
EKORNES

# za errepideetan

- Sindikatuek diote Aldundiaren ardura dela segurtasuna bermatzea
- Foru Aldundiak kontratatutako enpresei eskatu dizkie ardurak




ENEKO AZKARATE

ko.

nean ikerketa egiten ari da Foru Aldundia: "Lanen zuzendaritzari txostena egitea eskatu dio Aldundiak, istripuaren arrazoiak jakiteko. Txosten horren bidez, gainontzekoak ere kontuan harturik, Osalanenak kasu, arrazoiak zein ardurak jakingo ditugu eta hauek argitzen dutenaren arabera jokatu", agintzen du Diputazioak.

Lurralde erakundea ez dute erantzule zuzentzat jotzen sindikatu edo langileek, hala ere, hauek bat datoz esatean Aldundiak zorrotzago kontrolatu beharko lukeela segurtasuna.

LEHEN HIPOTESIAK

### Langileak lotuta zeuden, baina pieza osoa jausi zen

**Osalan Lan Segurtasun eta Osasun Euskal Erakundeak istripuon gaineko txostenak egiten dihardu. Lehen susmoen arabera, egiturari eusten zion katearen maila bat apurtu, eta hark eragin zuen egiturok erortzea. Langileak arnesekin lotuta zeuden, baina egitura osoa jausi zenez, arneson funtzioa alferrikakoa izan zen.**

GIDARIEK, SUSTOA

### Urtarrilean porlanezko pieza bat ia erori egin zen

**Langileek ez ezik, herritarrek ere izan dituzte sustoak A-1eko lanak direla-eta. Urtarrilean porlanezko pieza bat erortzear egon zen, eta zintzilik geratu zen, 50 metroko altueratik, Larreategiko zubibidean. Horren ondorioz, kaminoa itxi eta zirkulazioa desbideratu egin behar izan zuten. Zorionez ez zen beste ezer gertatu.**

LEGEARI IRUZUR

### Enpresa batzuek nahiago ei dute arriskatzea

**Sindikatuek salatzen duten beste gai bat da askotan enpresek eurek ez dutela larregi inbertitzen segurtasunean, eta legea, hortaz, ez dutela betetzen. Honako hau diote: "Enpresa askok onartzen dute isuna jaso lezaketela une baten, baina bitartean, askoz gehiago irabazten dute, eta gurago dute arriskatzea".**

**UNAI MARTÍNEZ** / ELA SINDIKATUKO ARDURADUNA DEBARROAN

## *"Heriotza kopuru deigarria da, sektoreko tasa altua izan arren"*

**Gure inguruko sindikatu garrantzitsuenek protesta ekitaldiak egin zituzten Eibar-Gasteiz autobideko lan-heriotzak salatzeko. Unai Martínez ELAko ibarreko koordinatzailea ere bertan izan zen.**




**2001 urtetik hona, zazpi lan heriotza izan dira Eibar-Gasteiz autobidean…**

Hala da. Lehen bi heriotzak 2001eko udan izan ziren, putzu batean. Gero, beste bi langile elektrokutatuta hil ziren. Orain dela gutxi, bi erorketa izan ziren… Hori dela-eta, Foru Aldundiari, Roman Sudupe eta Anton Jaimeri, batzarra eskatu genien, eta baiezkoa eman ziguten. Ikusi egin behar.

**Zelakoak izaten dira langile hauen lan baldintzak?**

Foru Aldundiak lanak esleitzen dizkio enpresa bati, baina azpi-kontratazioa ematen da, hau da, enpresa horrek beste bat azpikontratatzen du, eta horrek beste bat… Azkenean, langile batzuek ez dakite zein enpresarendako ari diren lanean.

Bestalde, langile asko Euskal Herritik kanpotik ekartzen dituzte; asko asteburuan euren herrira bueltatzen dira, eta domeka gaua errepidean ematen dute, eta handik, segidan, lanera joaten dira. Horrez gain, lan mota hauetan ordu estrak ez dira kontrolatzen. Hamar edo hamaika ordu egiten dituzte lan.

**Esan daiteke, hortaz, azpikontratazio sistemak segurtasunik eza mesedetzen duela.**

*"Eskandalua da 2003an hainbeste heriotza gertatzea; antzinako kontua dirudi"*

Bai. Ez dago lan finkorik; eraikuntza sektorean, langileak dauden tokitik ekartzen dituzte, eta leku batetik bestera ibiltzen dira; lan baldintzak oso eskasak dira, oro har.

**Eraikuntza sektoreak, edozelan ere, beti izan du arriskutsu izatearen ospe txar hori…**

Bai, baina orain gertatzen ari dena deigarria da, eraikuntza sektoreko heriotza tasak kontuan hartuta ere. Eskandalua da 2003 urtean hainbeste hildako egotea. Gogora ekartzen dit katedralak eraikitzen ziren garaiak, eta orduan zelan egiten zuten lan. Kontuan hartu behar da, gainera, autobidea oraindik Bergarako altueran dagoela; hemendik eta bukatu artean, ikusi egin behar!

**Langileak eurak badaude kontzientziatuta?**

Sindikatuok deitutako geldiuneekin bat egin dute, baina egia da euren lan baldintzek kontzientziazioa zailtzen dutela. Buru belarri lan egiten dutenez –hau da, etorri, ahalik eta lan gehiena egin eta agindutakoa bete, kobratu, eta joan–, ez daude borrokatzeko gertu. Sektore horretan, kontzientziazioa egon, badago, eta badakite baldintza txarretan ari direla, baina afiliatzeko orduan, adibidez, gehiago kostatzen zaie.

**Zure iritziz, zeinek du ardurarik handiena lan istripu horiek saihesteko orduan?**

Nik uste dut Foru Aldundiak ahalegin handiagoa egin beharko lukeela. Ahaztu egiten zaigu errepideok guztiok ordaindutako lanak direla, eta segurtasun handiagoa eskatu beharko genukeela. Diputazioak lan horiek esleitzen ditu eta ardura osoa enpresari pasatzen dio, eta horrek ez luke horrela izan behar.






ENEKO AZKARATE

Espainiako auzitegien erabakiaren aurka protesta egiteko manifestazioa egin zuten joan den domekan Bergaran.

# Plataformek manifestazioak deitu dituzte legez kanporatzea salatzeko

*Goizeko lanuztearen ostean arratsaldean izango dira protestak ibarrean*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**AuBren eta herri plataformen zerrendak legez kanpo utzi izana salatzeko, protesta eguna izendatu du gaurkoa AuBk. Euskal Herri osorako egindako lanuzte deialdiaz gain, beste hainbat protesta ekintza deitu dituzte Debagoienean.**

AuB eta herri plataformetako zerrendei maiatzaren 25eko hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea ukatu die Auzitegi Gorenak. Horren ondorioz, ibarreko ezker abertzalearen plataformak bertan behera geratu dira.

Debeku hori salatzeko erantzun eguna izendatu du AuBk gaurkoa eta goizerako bi orduko lanuztea deitzeaz gain, ibarreko herrietan arratsaldez ere izango dira protestaldiak.

Bergara Aurrera plataformako kideek joan den domekan manifestazioa egin zuten eta eguaztenean zera esan zuten prentsaurrekoan: "Erasoari egin dakiokeen erantzunik onena Euskal Herriaren eraikuntzan urratsak ematea da eta etorkizuna dago jokoan". Bide batez, kalera jotzeko beharra azpimarratu zuten, eta horretarako gaur, egubakoitza, 19:00etan egingo den manifestazioan parte hartzeko dei egin zuten. Arrasaten ere manifestazioa egingo dute, Sebero Altubetik abiatuta, 19:30ean. Oñatiko Ereitten-ek kanpaina hasteko 20:00etarako deitu du manifestazioa eta ordu berean aurkeztuko du Elgeta Auzolanian plataformak bere zerrenda eta programa, eta ondoren kale bilkura egingo dute. Aramaioko Hamalau plataformak ere kale agerraldia egingo du 20:00etan eta Antzuolako Gertu Gae plataformak arratsaldeko seietan Beheko Auzoan elkartzeko dei egin die herrietarrei.

*Euren zerrendak hautestontzietan egongo direla azaldu dute plataformek*

Legez kanpo utzi arren euren zerrendek hautestontzietan jarraituko dutela azaldu nahi dute plataformetako kideek manifestazioekin.

Bestalde, maiatzaren 10ean *Bai Udalbiltzari, Bai Euskal Herriari* lelopean Bilbon egingo den manifestazio nazionalera joateko dei egin dute herrietako plataformek. Bertara joateko autobusak irtengo dira Debagoienetik, besteak beste, Bergaratik eta Oñatitik.




## BAILARAN LABUR

### Arrasateko Aralarrek martitzenean aurkeztu zituen zerrenda eta hauteskunde-programa

Martitzen iluntzean egin zuen Aralar alderdiak Arrasateko Udalerako aurkeztuko dituen zerrendaren eta programaren aurkezpen ekitaldia; hantxe egon zen, besteak beste, Joxe Etxeberria alkategaia. Bergarako Aralarrek, berriz, datorren astean egingo du aurkezpena. Hilaren 14an, eguaztena, Miguel Altuna Institutuan aurkeztuko dute Bergarako Udalerako hauteskunde programa, 19:30ean. /A.I.

### Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Elgetako plataformak aurkeztu dituzte

Oraingo astean aurkeztu dituzte lau herri horietako plataformek euren hautagaiak eta programak. Aretxa Aretxabaletako herri ekimenak martitzenean aurkeztu zituen hautagai zerrenda eta programa; Iñaki Iturri izango da zerrendaburua. Arrasateko Herri Anitza plataformak, berriz, Xabier Zubizarreta aurkeztu zuen alkategai, eta Eskoriatzako Kontzejupek, azkenik, Dorleta Kortazar. Elgeta Auzolanian *t*aldeak gaur egingo du aurkezpena, 20:00etan./A.I.

### González de Txabarri, EAJ/EA koalizioko Diputatu Nagusirako hautagaia, Bergaran

Bergaran egon zen martitzenean Joxe Juan González de Txabarri, EAJ/EAko Diputatu Nagusi izateko hautagaia. Uliazpi Fundazioaren egoitzak eta San Joxepe erretiratuen elkartea bisitatu zituen. Bestalde, Arrasate eta Aretxabaletako EAJ/EA koalizioek zerrendak aurkeztu dituzte; Arrasaten Ignacio Lakuntza izango da alkategai eta Aretxabaletan, Arritxu Oliden. Juan Mari Juaristik eta Iñaki Galdosek hartu zuten parte bi aurkezpenetan. /A.I.

# UGTren Arrasateko egoitzaren aurkako erasoa egin dute

*Lau koktel jaurti zituzten eguazten gauean*

UBANE MADERA

**Gogor salatu dute UGT sindikatuko ordezkariek Arrasateko egoitzaren kontra jasandako erasoa. Eguazten gauean ezezagun batzuk lau molotov koktel jaurti zituzten egoitzaren kontra; koktelok bi bulegotara sartu ziren, leihoetatik.**

Kalte material dezente eragin dizkio UGTko egoitzari eguaztenekoerasoak. Baina, batez ere, bestelako kalteak salatu zituzten UGTko ordezkariek. Sindikatuko koordinatzaile nagusi Damaso Casadok eta PSE-EEko idazkari nagusi Manuel Huertasek bat egin zuten askatasun sindikalaren kontrako atentatua dela esatean. Horrez gainera, Dámaso Casadoren hitzetan, atentatuaren egileak faxista eta mafioso hutsak dira, eta ez dute lortuko UGTk bere lana etetea. Bestalde, herritarren segurtasunaren eta askatasunaren erantzule zuzena Eusko Jaurlaritza dela adierazi zuen, hori lortzeko beharrezko guztia egiten ez duela salatu zuen eta, erasotzaileak lehenbailehen atxilotzeko exijitu zuen.

# Egunkari berrirako 191.900 euro lortu nahi dira ibarrean

*Akzioak salduko dituzte herri batzordeetan*

*Euskaldunon Egunkaria* itxi eta berehala beste euskarazko egunkari bat kaleratzeko konpromisoa hartu zuten *Egunkaria*-ko langileek. *Berria berri* kanpainaren bidez aditzera eman dute ekainerako kalean egongo dela egunkari berria, baina komunikazio proiektua abian jartzeko bost milioi euro behar dituzte.

Diru hori lortzeko, besteak beste, 50 eta 300 euroko akzioak jarri dituzte salgai. Debagoienean *Egunkaria*-ren aldeko herri batzordeek bideratuko dute akzioen salmenta eta euskara elkarteetan, euskaltegietan eta kultura etxeetan erosi ahal izango dira. Erosleek kanpaina amaieran ziurtagiri bat jasoko dute.

Debagoienean, guztira, 191.900,35 euro jasotzea da Herri Batzordeen asmoa. Herri bakoitzeko biztanle eta euskaldun kopurua kontuan hartu dute kantitatea zehazteko orduan./I.A.

# Anorexiari eta bulimiari aurre egiteko elkarteak egoitza ireki du Arrasaten

*Gaixo debagoiendarrei laguntzeko zerbitzu hobea eskainiko dute*

ENEKO AZKARATE

**Datorren eguaztenean, hilak 14, inauguratuko dute anorexiari eta bulimiari aurre egiteko Euskadiko elkartearen (Acabe) Debagoieneko egoitza. Arrasateko Jose Luis Iñarra kalean dago Acabe elkartearen bulegoa.**

Acabe zentrokoek 1994az geroztik dihardute lanean anorexia eta bulimia gaixotasunen aurka. Izan ere, 13 eta 21 urte arteko emakumezkoen artean 100etik 4k dute anorexia edo bulimia. Datuak gogorrak dira, baina dagoen errealitatea islatzen dute.

Estatistika horiei buelta eman eta afektatuei laguntzeko ireki dute egoitza. Orain arte Donostian izan dute egoitza Acabekoek, eta Debagoieneko afektatuek hara joan behar izan dute. Aurrerantzean gure ibarrean ere izango dute bulegoa, zerbitzu hobea emate aldera. Bulegoa zabaldu berri badute ere, orain dela urtebetetik, hamabostean behin, Debagoienean ere eskaini izan dituzte zerbitzuak Acabekoek, eskualdeko Gizarte Ongizate Zerbitzuen laguntzarekin.

Anorexia eta bulimia gaixotasunak elikadura prozesuaren trastornoen ondorioz sortzen dira. Batez ere emakume gazteei eragiten diete, baina gizonezkoen artean ere ugaltzen ari diren gaixotasunak dira.

*13 eta 21 urte arteko emakumeen artean %4k dute anorexia edo bulimia*

*Acabe elkarteko Gipuzkoako adarrak ireki du, Arrasateko Udalak lagatako bulegoa*

**INFORMAZIOA, HITZALDIAK...**

Bisita ugari jasotzen dituzte Acabekoek urtean barrena. Zentroetara joaten diren afektatuen batez besteko adina 25 urtekoa da. Zentroetan psikologoen laguntza eta informazioa, hitzaldiak nahiz bestelako ekintzak antolatzen dituzte. Orain, Acabe talde bezala indarra hartzen ari den neurrian, zerbitzua herritarrei hurreratzea da helburu nagusia. Horregatik ireki dute Arrasateko egoitza ere: "Ikusten genuen urrutiagotik etorri behar zuten afektatu eta familia artekoek zailtasunak zituztela, konkretuki Arrasate eta inguruko herrietakoek, biztanle asko dituzte-eta", diosku Garbiñe Agirrek.

Laguntza nahi dutenek nahikoa izango dute 635 74 00 92 telefonora deitzea, eta bertako psikologoak hitzordua eskainiko die gero.



## Gutxituendako etxe bat zabaldu du Uliazpik

Urritasun mental larriak dituztenak zaintzeko etxe bat inauguratu du Uliazpi fundazioak Bergarako Tokieder plazan. Etxeak hamar lagunendako tokia dauka. Bestalde, egoitza berean eguneko zetroa ere badauka Uliazpik, joan den ekaina ezkero zabalik dagoena. Eguneko zentro horretan 20 lagunendako tokia dago. 10:00etatik 17:00ak bitartean dago zabalik eguneko zentro hori. Urritasun mental larriak dituzten Debarroko gaixoak zaintzen dituzte Bergarako egoitza horretan. Uliazpi fundazioak hiru etxe ditu Gipuzkoan, 238 lagun zaintzen ditu eguneko zentroetan eta beste 213 etxeetan. /E.A.

# Bergarako UNEDek 18 ikastaro emango ditu udan, eta iazko eskaintza bikoiztu egingo du

*Gizarte Zientziak, Osasuna eta Psikopedagogia arlokoak izango dira*

ENEKO AZKARATE

Bergarako UNEDek II. Uda Ikastaroak aurkeztu ditu oraingo astean. Iazkoarekiko bikoiztu egin du ikastaroen eskaintza. Hain justu, 18 ikastaro eskainiko ditu aurtengo udan –horietatik bost euskaraz–, Gizarte Zientzien, Osasunaren eta Psikopedagogiaren arloetakoak. Ekainaren 24tik uztailaren 4ra iraungo dute eta izena emateko epea ekainaren 8ra arte dago zabalik. Iaz 230 lagunek hartu zuten parte UNEDek antolatutako udako ikastaroetan.

Honako hauek dira eskainiko diren ikastaroetako batzuk: Europako Batasunaren erreforma eta handitzea, Gizarte Ongizatea Euskal Herrian, *Tai Chi Chuan* eta *Chi Kung*-eko hastapen ikastaroak, eta heziketa arloko hainbat ikasgai ikasleen komunikazio gaitasunekin lotutakoak.

Ikastaroak edozein herritarri zuzenduta daude, baina, bereziki, Haur Hezkuntzako, lehen eta bigarren zikloetako eta heziketa bereziko irakasleei. Matrikularen zenbatekoa 60 eta 120 euro artekoa izango da. Batez beste 12 orduko iraupena izango dute ikastaroek.

## BAILARANLABUR

### Euskara Biziberritzeko Plana onartuko du Bergarako Udalbatzak astelehenean

Astelehenean onartuko da Bergarako Euskara Biziberritzeko Plana. Honekin, 1999an Eusko Legebiltzarrak onartu zuen plana herrietan abian jartzeko bidea zabaltzen da. Planaren bidez, orain arte euskararen alde Bergaran egin den lana sendotu eta esparru berrietara hedatu nahi da. Debagoieneko lehenengo herria da plan hau onartzen duena. /E.A.


# Indonesiako altzariak

## Erdi-prezioan!



**URRETXUn
Udaberri kanpaina**
(maiatzaren 2tik
ekainaren 30era arte)

ORDUTEGIA:
10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara
(astelehenetik zapatura)
eta 11:00etatik 13:00etara (domeketan)




**Indonesiatik inportaturik, zure etxerako mota guztietako tekazko altzariak**

Tel.: 943 72 53 26 • *www.lba-antic.com*



**ULMA**

**ULMA Manutención, Koop. E. / Oñati**

**OHIKO BATZAR NAGUSIA
DEIA**

**Eguna:** 2003ko maiatzaren 16a
**Ordua:** 14:30ean lehen deialdian eta 15:00etan bigarrenean
**Tokia:** Oñatiko Institutuko Batzar Aretoan

**GAIAK**

1) AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO TXOSTENA
2) 2002KO EKITALDIKO MEMORIAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA
3) ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4) 2002KO EKITALDIKO DIRU-KONTU ETA BALANTZEAREN AZTERKETA ETA, HALA BALEGOKIO, ONARTZEA.
5) EMAITZEN BANAKETA
6) HEZKUNTZA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO FONDOAREN APLIKAPENA (H.K.S.F)
7) ERREGIMEN EKONOMIKOARI DAGOZKION ESTATUTUZKO XEDAPENAK
8) GOIESTRUKTURAKO ENTITATEEN GAIAK
9) KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
10) ESTATUTU SOZIALEN 28. ARTIKULUAREN ALDAKETA
11) KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEEN BERRIZTAPENA
12) ZAINTZA BATZORDEKO KIDEEN BERRIZTAPENA
13) KONTSEILU SOZIALEKO KIDEEN BERRIZTAPENA
14) ESKARI ETA GALDERAK

*Oñati, 2003ko maiatza*

OHARRA: Kontabilitate Liburuak eta Estatutu Sozialen 28. artikuluaren aldaketari buruzko informazioa bazkide guztien esku daudela jakinarazten da.

# Zabalik



JOSE RAMON ZUBIZARRETA

## Hogeigarrena

**Badira 20 urte Herri Urrats ospatzen hasi ginela. Hasierako ilusio eta gogo haiek fruitu oparoak eman dituzte. Euskal Herriak estimu handia erakutsi die ikastolen jaiei eta Herri Urratsi, apartekoa. Herri xeheak Herri Urratsen, eragozpenak eragozpen eta kosta ahala kosta, estatuek ezarritako muga eta traba guztien gainetik, herriaren asmo eta proiektuak aurrera atera nahi ditu.**

**Eta hor dago emaitza: ipar Euskal Herrian ere errealitate sendoa dugu egun ikastola. Eraikin ugari egin eta jai honek bideragarritasuna eman dio proiektuari. Alde horretatik, orain 20 urte asmatu ere egingo ez genuen "sasoi ederrean" daude gaur Seaskako ikastolak.**

**Baina atzera begiratu beharra dago hainbat eta hainbat jenderen izerdi eta nekeen fruituak antzemateko, guraso, irakasle eta ikasle olatu multzo erraldoi eta geldi ezina bilakatuta. Beren ilusioa eta sinesmena Euskal Herri osora hedatuz, egia bihurtu dute ikastolen proiektua.**

**Euskal Herri honetan ikastolok beste behin erakutsi dugu herrigintzan aritzeko estilo bat, xedea argi izan eta mantenduz, unean uneko eta tokian tokiko egoera on eta txarretara egokituta ikastolen biziraupena bermatuz.**

**Ikastolona eguneroko lana da, talde gisa Seaskak erakutsi duen bezala emaitza ezin hobeak eskuratuz. Non eta giro hartan gai izan baitira ikastola-proiektua gauzatzeko: 24 ikastola; ama eskolatik unibertsitatea arteko hezkuntza eskaintza; 2.000 ikasle inguru.**

**Horrela, Euskal Herri osora hedatzen den ikastolon proiektuan murgilduta, Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako ikastolak elkarlanean bat eginik aurrera egiten ari dira.**

# Gutunak

## Elkarlanean jardun

Herrian Aralar alderdiaren eta beste batzuen aurka agertu diren pintadak direla-eta, geure tristura agertu gura dugu eta Aretxabaletaren alde ezkerretik ekiteko dugun konpromisoa eta ilusioa berretsi.

Bestalde, herritarren botoa jasotzen duten guztiek udaletxean lanean jardutea bermatzeko geure esku dagoen guztia egingo dugula adierazteaz gain, herriko ezker abertzale osoak elkarlanean jarduteko geure bokazioa ere jakinarazi gura dugu.

ARETXABALETAKO ARALAR
Aretxabaleta

## Agur Begoña

Une latzak pasatzen ari gara. Ama hil zaigu. Begoña hil egin da. Gogorra benetan halako egoera pasatu beharra, hustuta utzi gaitu. Baina atzo arratsaldeko 7etan Garagartzako elizan ehunka lagun ikusi genituenean gure hutsunea betetzen hasi zen, poliki-poliki betetzen. Denekin ezin egon, ezin eskerrak eman banan-banan. Hori dela eta, lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkizuegu elizkizunetara etorritako denoi, zuen presentziak asko lagundu digulako.

Eskerrak ezin etorria azaldu duzuenoi. Eskerrak bereziki Garagartzako auzoari gure ama berezia zela erakutsi diguzuelako. Eskerrak ospitalean hainbat egonalditan aldameneko ohean egon diren lagunei, beti laguntzeko prest agertu zaretelako.

Eskerrak Debagoieneko ospitalean bigarren solairuan lanean ari diren erizain eta laguntzaileei nire ama goxotasunez eta mimoz zaindu izan duzuelako. Ospitaleko medikuei eta bereziki Ibañez, Hernandez eta Iñaki Peñari bere ondoan egon eta esperantza eman diguzuelako.

BEGOÑA HERIZ ARANZABALEN FAMILIA
Arrasate

# Hemeroteka

## Ni ez naiz hemengoa

Horixe idatzi zuen gure idazle handienetako batek, oso aspaldian. Eta neuk, hark bezala, oso bestelakotzat dut nire herria, orain bizi garen honen antzik txikiena ere ez lukeena. Gero eta sarriago gertatzen zait horretaz jabetzea: tokiz kanpo nagoela, denboraz kanpo, herriz kanpo. Oker egon naiteke, jakina, eta hala izango da, zeren eta identifikazio-paper guztiek neu hemengoa naizela behin eta berriro gogorarazten baitidate. (...)

Izatekotan, beste herri batekoa nintzateke ni. Nire herrian pertsona bakar batek ez lituzke kutsatuko inguruan dituen lagunak, gertu-gertukoak zein zoriak aldean ipini dizkionak. Hori beste nonbait gerta daiteke, baina ez nire herrian. Delako herri horretan pertsonek elkarri adieraziko liokete beren ikusteko modua, eta elkar hartuta egingo lukete modu horiek batera bizi ahal izateko bidea. Halakoxea da nire herria, edo nahi nuke izatea.

Nire herrian ideiak barra-barra zabalduko lirateke lau haizetara, eta ez litzateke bat bera ere legez kontra jarriko. Bertan ez legoke zerrenda beltzik, ezta zenbaitzuek hain maite dituzten zerrenda grisik ere. Egia da, bai, nire herrian ez litzatekeela armen bidez beren egia absolutu bihurtu nahi lukeenik, ezta doluaz, amorruaz eta izuaz elikatzen den sarraski-jalerik ere. Horrek asko erraztuko lituzke gauzak nire herrian. Edonoren herrian.

Nire herrian justizia bera eta bakarra litzateke herritar guztientzat, abiadura berberaz jardungo luke aurrean zein duen erreparatu gabe. Bi erritmoko justiziarik ez da; hala jokatzean, injustizia bihurtzen delako. Eta inork ez lituzke dudan jarriko nire herriko unibertsitateko irakasleen zintzotasun eta profesionaltasuna, hargatik. Eta abar, eta abar, eta abar. Ongi pentsatzen jarrita, nor senti daiteke herri horretako kide? Maiatzeko hauteskundeek argi pittin bat egingo ote dute?

PILI KALTZADA
'Deia'. 2003-05-08

## Zubigintza

Zirriborratuak omen dituzte politikariek mitinak. Ibiliak omen dira espioilanetan ere, aurkariak zer mitin prestatzen ari diren zelatan. Eta aurreikusiak omen dituzte mitin horien erantzunak ere.

Hala, zubigintza hitza erabiliko omen da gehien mitinetan. Eta politikari batek pentsatua du zer kontrapuntu jarri ere bere mitinean: pasadizo bat, lankide bati ikasia. Sarri kontatzen baitu: hauteskundekanpaina etortzen den bakoitzean.

Hego Amerikako presidente bat joan da herrixka batera. Eta han hasi da plazan entzuleen belarriak azkuratzen, alkatea aldamenean zuela. Berehala iritsi zitzaien aginduei txanda (agintzea izan, nonbait, agintarien zeregina).

- Eta agintzen dizuet, herritarrok, herri aberats bihurtuko dugula zuen herri txiki bezain maitagarri hau. Urte gutxitan, gainera.

Aho zabalik zeuden herritarrak entzuten. Aho zabalik ere bai egoskorren bat, betiko promesa antzuez gogaituta. Eta presidentea jo eta su, agindu eta agindu:

- Bidea asfaltatuko dugu. Eta, gainera, eskola berria egin. Eta, gainera...

"Gainera gehiegi, gauza onerako", egoskorrak.

- Eta, gainera, zubi bat ere egingo dizuegu, ibaia alderik alde zeharka dezazuen inolako arriskurik gabe... —presidenteak gero eta sutsuago—.

Orduan, herriko alkateak ahopeka:

- Baina, presidente jauna, hemen ez dugu ibairik.

- Eta, gainera, ibaia ere ekarriko dizuegu... —presidenteak, are sutsuago—.

Eta, entzuleen barreak isiltzean, gure politikariak esango omen du:

- Gizartea (ibaia) da lehenengo; eta politika ondorengo.

PELLO ESNAL
'El Diario Vasco'. 2003-05-08

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE




Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

OÑATI

## Arrikrutzeko proiektuan urrats berriak eman dituzte

Gipuzkoako Foru Aldundiak Arrikrutz Ekipamenduaren Sistema Orokorra sortzeko hiri antolaketako arauak aldatzea onartu berri du.

Horrek esan nahi du Arrikrutzeko lur eremua ezin izango den arren hiritartu, hainbat lan egiteko aukera egongo dela Arrikrutzeko proiektua aurrera ateratzeko.

Arrikrutzeko kobako 53 galeria irekiko dituzte eta turistikoki ustiatu, betiere, galeria guztiak babestuz eta zainduz. Horixe da Arrikrutzeko proiektuaren helburua. /A.I.

ANTZUOLA

## Gerbasio Legorburu txistulariari zilarrezko domina emango diote

Domekan izango da hori, eta 12:30ean udaletxean egingo duten ekitaldi nagusiaz gain, beste hainbat ere antolatu dituzte herriko txistulariek, Euskal Herriko Txistularien Elkarteak eta Udalak.

Bizi osoa darama Gerbasiok txistulari, gaztetxotatik. Egindako lana eskertzeko, zilarrezko domina emango dio Euskal Herriko Txistularien Elkarteak. Udalak, berriz, herriko bandera eta gutuna emango dizkio. Goizeko hamarretan hasita, hainbat ekitaldi egongo dira domekan, egun osoan. /A.I.

ELGETA

## Hauteskunde-mahaietan egongo diren elgetarrak aukeratu dituzte

Zozketa bidez aukeratu zituzten, ezohiko osoko bilkuran, maiatzaren 25ean hauteskunde-mahaietan egongo diren elgetarrak. Hauek osatuko dute Elgetako udaletxean egongo den mahaia: Olaia Jiménezek (mahaiburua), Esteban Sarasketak (lehenengo mahaikidea) eta Mikel Elkorok (bigarren mahaikidea). Etas ordezkoak hauexek dira, hurrenez hurren: Maite Retolaza, Nerea Villa, M. Jose Agirregomezkorta, Luis Antonio Alkorta, Igor Irazabal eta Alberto Arakistain./I.A.



AINTZANE GARDOKI

ESKORIATZA

## Eskoriatzar askok hartu zuten parte zaharberritu duten udaletxearen inaugurazio ekitaldian eta irudi korporatibo berriaren aurkezpenean

Apirilaren 30ean inauguratu zuten Eskoriatzako udaletxe berritua. Inaugurazioan, eskoriatzar askok hartu zuten parte. Ibarreko agintari ugarik ere ekitaldian egon gura izan zuten. Herriko dantzari batek kontzejupean ohorezko aurreskua dantzatu zuen, eta gero Edorta Zubizarreta alkateak udaletxe berriko ateak ireki zituen. Horren ondoren, osoko bilkuren areto berrian udalbatza osatzen duten alkatea eta bederatzi zinegotziak eseri ziren inaugurazio ekitaldiarekin jarraitzeko. Hamabost hilabetean egin dituzten zaharberritze lanetan, oztopo arkitektonikoak kentzeaz gainera, argitasuna eta ikuspegi zabala eman gura izan diote udaletxeari. Irudi korporatibo berriak, berriz, XXI. mendeko Eskoriatzaren irudi modernoa adierazten duela esan zuten arduradunek. /A.G.

ARRASATE

# Barne Sailak helegitea ipini du Arrasateko udaltzaingoaren kontra

Arrasateko Udaltzaingoan bederatzi udaltzain berri dabiltza lanean otsailaz geroztik. Hain justu, orain ikastaro bat egin beharra zuten Arkauten, lanbidean jarduteko. Baina, joan den egubakoitzean Udalean jakin izan zutenez, Eusko Jaurlaritzak ukatu egin die ikastaroa egitea, hain zuzen, Barne Sailak helegitea ipini duelako. Erakundeak emandako argibideen arabera, bederatzi udaltzainok lanpostuetarako hautaketa proba fisikoak egin zituztenean epaimahaian quorumik ez zegoelako. Hain zuzen, mahaiko presidentea falta zelako ipini ei dute helegitea.

**ERREKURTSOA ERREKURTSOARI**

Horren aurrean, Jose Mari Urizar *Ametzu*-k Goiena Telebistari esandakoaren arabera, quorumaren argudio horrek ez du zentzurik helegitea ipintzeko. Eta errekurtsoa ipini diote helegite horri: "Errekurtso horri beste errekurtso bat egin diogu, eta hori Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian dago". Hortaz, orain, epailearen erabakiaren zain daude.

Horrez gainera, Udaleko ordezkariek zera argitu gura izan dute: helegiteak ez duela zerikusirik udaltzain batek kale borrokan parte hartu izanaren zurrumurruarekin. Antza denez, zinegotzi batek gaia aztertzeko eskatu zuen lehenago. Udalak hala egin, eta ikusi zuen udaltzain horrek ez zuela inolako aurrekari penalik. Barne Sailaren helegitean horren gaineko ezer ez dutela esaten ere adierazi du. /U.M.

**Zertzelada**

**Udaltzainek lanpostuetarako hautaketa proba fisikoak egin zituztenean epaimahaian quorumik ez zegoelako ipini dute helegitea**

BERGARA

# Lanbide Heziketa bultzatzeko plana abian jarri dute Lazpiurren

Gipuzkoako enpresaburuen elkarteak, Adegik, plan pilotua jarri du abian. Helburua da gaztetxoei enpresaren esparrua gertutik ezagutzera ematea eta Lanbide Heziketako ikasketa teknikoak egitera animatzea. Plana abian jartzeko Lazpiur enpresa aukeratu dute, eta atzo han egon ziren planaren arduradunak eta ibarreko ikastetxeetako orientatzaileak. Enpresa gertutik ezagutzeko aukera izan zuten, Migel Lazpiur lantegiko nagusiaren eskutik. Orientatzaileek ikasleei emango diete gero informazioa. Lazpiurrek azpimarratu zuen "zailtasunak" dituztela arlo teknikoko langileak aurkitzeko. /L.K.



LEIRE KORTABARRIA

**Migel Lazpiur (eskuman) lantegiaren gaineko azalpena ematen.**

ARETXABALETA

## Lausitta plaza egokitu egingo dute, erabilera handiagoa izan dezan

Aretxabaletako Lausitta kaleko etxe artean dagoen plaza egokitzea erabaki du Udalak. Jolas eta kirola egiteko lekua dago orain, baina gutxi erabiltzen dela ikusita, oinezkoak erosoago pasatzeko egokituko dute. Asfaltoaren ordez harria jarriko dute, eta eserleku lana beteko duten bi magnoliadun bankuak jarriko dituzte. Jolaslekua hobetu egingo dute, bestalde.

Ia 85 mila euroko aurrekontua dute lanek, eta sei enpresa aurkeztu dira lanok egiteko. Hilaren 19an erabakiko du udalbatzarrak nori esleitu. /M.A.

ARAMAIO

## Umeen udalekuetarako begiraleak behar dituzte

Udari begira, herriko umeendako udalekuak antolatu gura ditu Aramaioko Udalak. Baina horretarako begiraleak behar dituzte, eta begiraleak lortzeko deialdia egin du. Hain zuzen ere, interesa duenak datorren maiatzaren 16a baino lehen eman beharko du izena.

Honako baldintzok bete beharko dira begirale postura aurkezteko: 17 urtetik gorakoa izan behar du; eta begirale titulua edo maisu-maistra ikasketak izatea, EGA titulua eta umeen aisialdian eskarmentua izatea baloratuko dituzte.

LEINTZ GATZAGA

## Herritarrekin osatutako hautagaien argazkia, domekan

Maiatzaren 25ean egingo diren herri hauteskundeetara herritarrez osatutako zerrenda independenteak domekan, hilaren 11n, egingo du taldearen argazkia Leintz Gatzagan. Eguerdiko hamabietan jarri dute hitzordua, eta bost hautagaietatik lau egongo dira ohiko argazkia egiteko; izan ere, hautagai den Eugenio Otsoa kanpoan egongo da. Eugenio Otsoaz gainera, Juan Mari Makazagak, Jon Sasiainek, Nerea Marurik eta Jose Ramón Pérezek osatuko dute zerrenda. /A.G.

# Aitor Uribesalgo txapeldun Otala-Zelaiko krosean

## Probaren 25. urteurrenean, logotipo berria kaleratu eta diru sariak handitu dituzte

**Urkuluko urtegiaren inguruan jokatu zen, joan den domekan, Otala-Zelaiko krosa. 25. aldian 80 korrikalari inguruk hartu zuten parte, eta, eguraldi ona lagun, jende asko inguratu zen lasterkariak animatzera. Senior, beterano eta junior mailetako gizon-emakumeez gain, korrikalari gaztetxoak ere ibili ziren, haien partaidetza txikiagoa izan bazen ere. Urtegiari bi buelta eman ostean Iurretako Aitor Uribesalgo izan zen helmugara heltzen lehena.**

Otala-Zelaiko krosa hogeita bost urtez jarraian ospatu dute Aretxabaletan. Aurten, 80 lagunek eman zuten izena, eta horietatik 75 lasterkari iritsi ziren helmugara. Seniorrek bi buelta eman zituzten Urkuluko urtegiaren inguruan, eta gainerako lasterkariek, bakarra. Bestalde, korrikalari gaztetxoek ere jardun zuten.

Urteurrena ospatzeko, lasterketaren logotipoa berritu eta kamisetak atera dituzte. Bestalde, diru sariak ere handiagoak izan dira aurten.

Urte hauen ondoren, ordea, oraindik badago erronkarik gainditzeko, Asier Muxika Aretxabaletako kirol teknikariaren iritziz: "Korrikalari gaztetxoen eta herriko lasterkarien partaidetza indartzea da gure asmoa".

IRATI AGIRREAZALDEGI

| POSTUA | IZEN-ABIZENAK | DENBORA | HERRIA |
|---|---|---|---|
| **SENIORRAK (GIZONEZKOAK)** | | | |
| 1 | URIBESALGO, AITOR | 00:43:03 | IURRETA |
| 2 | CUADRADO, JOSE JAVIER | 00:43:16 | ZALDIBIA |
| 3 | BLANCO, JOSE ANTONIO | 00:44:54 | ORDIZIA |
| 4 | GORDO BRAVO, SERGIO | 00:46:53 | GASTEIZ |
| 5 | URIARTE, JOSU | 00:48:25 | MARKINA |
| 6 | OLAZABAL, KOLDO | 00:48:48 | ZARAUTZ |
| 7 | IMAZ, JOSE LUIS | 00:49:27 | IDIAZABAL |
| 8 | GUTIERREZ, JOSE RAMON | 00:51:10 | ARRASATE |
| 9 | JUARISTI, JORGE | 00:51:22 | AZPEITIA |
| 10 | ZELAIA, JEXUS | 00:51:44 | AZPEITIA |
| 11 | GORRITXU, ENEKO | 00:51:48 | LEGORRETA |
| 12 | ARANZABAL, JON | 00:52:09 | ELORRIO |
| 13 | IRIBEKANPOS, XABIER | 00:52:24 | ARETXABALETA |
| 14 | FERNANDEZ, TXUMAI | 00:52:35 | ZARAUTZ |
| 15 | FERNANDEZ, AITOR | 00:54:45 | BILBO |
| 16 | ZABALETA, JEXUS | 00:54:50 | OÑATI |
| 17 | ESTARAYO, ISIDORO | 00:55:16 | ERMUA |
| 18 | RIESKO, KARLOS | 00:55:58 | ANDOAIN |
| 19 | TXABEZ, IBAN | 00:57:00 | LEGORRETA |
| 20 | PARRA, RODOLFO | 00:57:05 | ANDOAIN |
| 21 | MURILLO, JUAN MANUEL | 00:58:15 | BILBO |
| 22 | GARAI, JOSE IGNACIO | 00:58:44 | ARETXABALETA |
| 23 | BARRAINKUA, ASIER | 00:59:11 | ARETXABALETA |
| 24 | ANTXIA, JON | 00:59:59 | ARETXABALETA |
| 25 | ESNAOLA, IMANOL | 01:00:29 | DEBA |
| 26 | BENGOETXEA, FERMIN | 01:00:30 | TOLOSA |
| 27 | PARRA, ROBERTO | 01:02:40 | ANDOAIN |
| 28 | CENTENO, MIKEL | 01:03:56 | ZARAUTZ |
| 29 | SEILLER, ULI | 01:10:37 | ALEMANIA |
| 30 | VIEIRO, GABRIEL | 01:11:22 | TRINTXERPE |
| **SENIORRAK (EMAKUMEZKOAK)** | | | |
| 1 | ARANBURU, IRATXE | 0:23:41 | ZARAUTZ |
| 2 | TALAVERA, ROSI | 0:24:25 | HENDAIA |
| 3 | BIAIN, ESTELA | 0:26:12 | OÑATI |
| 4 | ARAMENDI, NAGORE | 0:26:59 | AZPEITIA |
| 5 | KARRAZADO, ANE | 0:28:33 | DEBA |
| 6 | ETXEBERRIA, ALAITZ | 0:28:42 | AZPEITIA |
| 7 | BALZATEGI, EDURNE | 0:33:12 | ARRASATE |
| 8 | DOMINGUEZ, BELEN | 00:33:34 | ELORRIO |
| 9 | BEA, JULIA | 00:36:46 | OIARTZUN |

| POSTUA | IZEN-ABIZENAK | DENBORA | HERRIA |
|---|---|---|---|
| **BETERANOAK (GIZONEZKOAK)** | | | |
| 1 | BAKERIZA, JOSETXO | 0:22:32 | HENDAIA |
| 2 | FUERTES, SANTIAGO | 0:22:50 | ERMUA |
| 3 | OTXOA, JOSE ANTONIO | 0:23:11 | ERMUA |
| 4 | SAN PEDRO, JESUS | 0:23:38 | GASTEIZ |
| 5 | BRAVO, CLEMENTE | 0:23:58 | LAZKAO |
| 6 | ALDAMA, JAVIER | 0:24:12 | PORTUGALETE |
| 7 | DIAZ, FLORENCIO | 0:24:21 | ARRASATE |
| 8 | PEDROSA, BASILIO | 0:25:18 | ZARAUTZ |
| 9 | LUELMO, ALFONSO | 0:25:21 | ARETXABALETA |
| 10 | MALVAR, JUAN JOSE | 0:25:32 | ERMUA |
| 11 | GOMEZ, ANSELMO | 0:26:16 | BERGARA |
| 12 | MIGUEL, FELIZ Mª | 0:26:44 | ELORRIO |
| 13 | ACHAHBAR, MOHAMED | 0:26:45 | BERGARA |
| 14 | RUIZ, CESAR | 0:26:57 | ARRASATE |
| 15 | FERRER, RAFAEL | 0:27:06 | DONOSTIA |
| 16 | RIVERO, FRANCISCO | 0:27:59 | ASTIGARRAGA |
| 17 | BOADA, JOAN | 0:28:38 | BARTZELONA |
| 18 | AZKARGORTA, PEDRO | 0:28:45 | ARETXABALETA |
| 19 | URRETA, IÑAKI | 0:29:08 | ARETXABALETA |
| 20 | PRIMOY, JUAN JOSE | 0:29:26 | ARRASATE |
| 21 | ETXEBARRIA, JOSE Mª | 0:29:26 | AZPEITIA |
| 22 | FERNANDEZ, LUIS | 0:31:12 | URRETXU |
| 23 | OTEGI, JOSE Mª | 0:34:55 | ITSASONDO |
| 24 | GOÑI, DANI | 0:35:52 | DONOSTIA |
| 25 | GOÑI, AITOR | 0:35:54 | DONOSTIA |
| 26 | VALDEZATE, KRISPIN | 0:36:47 | ARRASATE |
| **BETERANOAK (EMAKUMEZKOAK)** | | | |
| 1 | GARCIA, Mª CARMEN | 0:30:17 | ARRASATE |
| 2 | BEDIALAUMETA, IZASKUN | 0:41:05 | ONDARRU |
| **JUNIORRAK (GIZONEZKOAK)** | | | |
| 1 | DELGADO, AITOR | 0:25:29 | ELORRIO |
| 2 | URIBEETXEBARRIA, GORKA | 0:27:28 | ARETXABALETA |
| 3 | DONAY, ENDIKA | 0:27:40 | ARRASATE |
| 4 | KORTABARRIA, BEÑAT | 0:29:59 | ARETXABALETA |
| 5 | ZAMALLOA, BEÑAT | 0.35:42 | ARETXABALETA |
| **JUNIORRAK (EMAKUMEZKOAK)** | | | |
| 1 | AIZPURU, MAITANE | 0:30:00 | AZPEITIA |
| 2 | ANTXIA, KATALIN | 0:41:10 | ARETXABALETA |

# Udaberriko txapelketak Debagoienean

## Palan, frontenisean, squashean eta tenisean jardungo dute kirolariek

**Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatuta, lau kirol txapelketa jokatuko dira ibarrean. Bihar, zapatua, hasi eta ekainera arte iraungo dute txapelketok.**

Bergaran pala eta frontenis txapelketak jarriko dituzte abian bihar, zapatua; Aretxabaletan Squash Txapelketa jokatuko da maiatzetik ekainera bitartean; azkenik, Tenis Txapelketak Oñatin izango du lekua, eta hori ere bihar hasiko da.

Aurrez Debagoienean jokatutako txapelketetan honakoak izan ziren irabazleak: Elgoibarko Ander Oñederra izan zen irabazle, Bergaran, tenisean; Arrasateko Frontenis Txapelketa, berriz, Candido Hurtadok eta Jose Izquierdok irabazi zuten.



Ander Oñederra elgoibartarrak (ezkerrean) irabazi zuen azken Bergarako Tenis Txapelketa.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

# Arrasate-Oñati lasterketa zapatuan

## ‘Egunkaria’-ren itxiera dela-eta, ‘Egunkaria, aurrera!’ izango da probaren leloa

**Arrasate eta Oñati arteko korrika proba jokatuko da bihar, zapatua, arratsaldez. Aurtengoa XXI. aldia izango da eta, nagusiek ez ezik, ibarreko hainbat ikastetxetako umeek ere hartuko dute parte, eurendako Oñatin prestatuko zirkuitu baten korrika eginez. Lasterketaren leloa *Egunkaria, aurrera*! izango da. Izan ere, azken urteotan Oñatiko Laixan Kultur Elkarteak *Euskaldunon Egunkaria*-rekin lankidetzan antolatu izan du Arrasate-Oñati lasterketa.**


XABI URZELAI
Iaz, Iurretako Aitor Uribesalgok irabazi zuen Arrasate eta Oñati arteko lasterketa.

Lagun arteko lasterketa moduan hasi zen Arrasate eta Oñati arteko lasterketa, eta hainbat urteren buruan, Oñatiko Laixan Elkarteak hartu zuen proba antolatzeko ardura. Aurtengoarekin, hogeita bat izango dira Debagoieneko bi herri horiek lotuz errepidea korrikalariz bete diren aldiak.

Aurreko urteotako partaidetza datuei begiratuta, aurtengorako 150-200 lagun espero dituzte zapatuan antolatzaileek. Izenematea zapatuan bertan Oñatin zein Arrasaten egin ahal izango da, arratsaldeko bostetatik aurrera, eta Oñatin izena ematen dutenek autobusa izango dute irteera puntura joateko.

Lasterketa 18:30ean hasiko da, eta sari banaketa 20:00ak inguruan egitea espero dute Oñatiko Laixan Kultur Elkarteko kideek. Sari nagusiez gainera, korrikalari guztiek kamiseta bana jasoko dute opari.

Arrasaten abiatu eta errepideko errei bakarra hartuta, Oñatira arteko hamar kilometroak lasterka egin beharko dituzte.

**IBARREKO IKASLEAK KORRIKA**

Helduek ez ezik, Oñati, Arrasate, Eskoriatza eta Aretxabaletako ikastetxeetako ikasle gazteak ere korrika arituko dira Oñatin, herri barruan prestatutako ibilbidean.

Azken urteotan *Euskaldunon Egunkaria*-rekin elkarlanean antolatu izan du Laixan Kultur Elkarteak lasterketa hori. *Egunkaria*-k, Oñatin zein beste hainbat herritan antolatu izan dituen probetako partehartzaile gaztetxoen artean, Port Aventurarako bidaia bat zozketatu izan du. Iazko bidaiaren irabazlea Igeldoko Herri Eskolako Fernando Zeligeta izan zen.

Aurten, *Egunkaria*-ren itxieraren ondoren, Egunkariaren Lagunak Kultur Elkartea izan da Laixanekin batera proba prestatu duena, eta *Egunkaria, aurrera!* izango da aldarrikatuko duten leloa. Orain arte, *Jantzi kirola euskaraz* izan da Arrasate-Oñati lasterketaren leloa. Izan ere, Laixanek lasterketa horrekin lortu nahi duen helburuetariko bat euskarak kirolean ere presentzia izatea da.

Lasterketa hau antolatzeko, jende askoren lana da beharrezkoa. Hortaz, lasterketaren antolatzaileek egun horretan laguntzeko gertu dauden ibarreko kirolzale eta euskaltzaleei dei egin nahi diete. Zapatuan bertan, arratsaldeko bostak inguruan, Oñatiko plazan agertu eta antolakuntzan dihardutenek adieraziko diete zein lanetan jardun beharko duten. Bestalde, debagoieneko kirolariak proban parte hartzera animatu nahi ditu Laixanek.

IRATI AGIRREAZALDEGI

## *Kirolabur*

### FUTBOLA/ARETXABALETA

Aretxabaletako infantil mailako futbol taldeak Gipuzkoako Txapelketa irabazi du. Igoera faseko azken partiduan Añorgari irabazi zion (0-1). Aretxabaletarrek berdinketa nahikoa zuten Kopa irabazteko; añorgarrek, ordea, garaipena behar zuten. Horrenbestez, Kopa irabazita, datorren denboraldian UDAko mutilek infantiletan maila gorenean diharduten Reala, Real Union, Tolosa eta horrelako talde indartsuen aurka neurtu beharko dituzte indarrak.

### MENDIA/ARETXABALETA

Alberto Iñurrategi mendizale aretxabaletarrak Trentoko Mendi Zinemaldi entzutetsuko sari nagusia jaso du *Hire Himalaya* ikus-entzunezkoarekin. Zuri-beltzean egindako lana da eta, bizitzaren eta heriotzaren gaineko gogoeta egiteaz gain, Felixen oroimenezko ikus-entzunezko izan gura du. Bestalde, bi anaien Himalaiaren gaineko ikuspegiaren isla ere bada lana. Trentoko sari hori ez ezik, aurrez ere Torellon eskuratu zuen beste bat Alberto Iñurrategik.

### PILOTA/BERGARA

Maiatzaren 13an eta 20an jokatuko dira VIII. Bergara Hiria Pilota Txapelketako finalerdiak: 22 urtez azpikoetan, Aspe-Errasti bikotea Azagirreren eta Esnaolaren aurka arituko da eta Arretxe-Muxika bikoak Retegiren eta Urrizalkiren aurka jokatuko du; nagusietan, berriz, hauexek izango dira partiduak: Huizi-Gutierrez Martínez de Irujo-Okiñenaren kontra eta Muguruza-Zapirain Eguskitza-Erauzkinen kontra. Finalak maiatzaren 27an jokatuko dira.

## GOIENKARIA SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Trintxerpe 0 - Aretxabaleta 3 / Hernani 1 - Aloña 0 / Tolosa 1 - Bergara 0 / Mondra 2 - Eibartarrak 0

**ASTEKO JOKALARI ONENAK**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | David Canas | (Aretxabaleta) | 3 puntu |
| 2. | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 2 puntu |
| 3. | Josu Zubikarai | (Bergara) | 1 puntu |

1 
**David Canas**
Aretxabaleta

2 
**Jon Muruamendiaraz**
Mondra

3 
**Josu Zubikarai**
Bergara

**David Canas**
Trintxerpen fin ibili zen David. Hiru golak bereak.

**Jon Muruamendiaraz**
Mondrak garaipen garrantzitsua eta, jakina, golak Jonek.

**Josu Zubikarai**
Eskuan zuten berdinketa, baina esku-hutsik etxera.

**SAILKAPEN OROKORRA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 19 puntu |
| 2. | Gorka San Vicente | (Bergara) | 16 puntu |
| 3. | Josu Zubikarai | (Bergara) | 10 puntu |
| 4. | Xabi Camino | (Aloña Mendi) | 10 puntu |
| 5. | Jon Altzola | (Bergara) | 9 puntu |

1 
**Jon Muruamendiaraz**
Mondra

2 
**Gorka San Vicente**
Bergara

3 
**Josu Zubikarai**
Bergara

4 
**Xabi Camino**
Aloña Mendi

5 
**Jon Altzola**
Bergara

Goienkaria

## FOTOKIROLA



GOIATZ ARANA

### Lisboa-Mosku ultramaratoia Arrasaten

Lisboan hasi eta 5.017 kilometro korrika egin ostean, 50 ultramaratoilari Moskura iritsiko dira 64 etapa eginda. Etapa horietako bat Arrasaten amaitu zen eta bertan Robert Wimmer alemana izan zen garaile. Munduko lasterketa luzeena da, eta, batez beste, 80 kilometro egiten dituzte lasterkariek egunean./I.A.



ARGAZKI PRESS

# Martxelo Otamendi

'EGUNKARIA'-KO ZUZENDARIA

## "Jendeak gogo handia dauka egunkari handi, sendo, kalitatezko eta erreferentzial bat izateko"

DIRUA BATZEKO KANPAINA

**"Jendea oso haserre dago *Egunkaria*-ren itxierarekin; orain, zerbait positiboa egiteko erabili behar dugu haserre hori, eta bost milioi euroak batzeko gaitasuna erakutsi"**

EGUNKARI BERRIA

**"Egunkari hobea egingo dugu, hobe daitekeelako eta orain arte ere, urtetik urtera, hobetzen ari ginelako; dena dela, nik uste dut egunkari duina egiten ari ginela"**

Martitzenean iragarri zuten berria: *Euskaldunon Egunkaria*-ko lantaldeak ekainaren bukaerarako egunkari berria kaleratuko duela, alegia. Horretarako lanean dihardute orain, baina proiektu berria aurrera ateratzeko, beharrezkoa dute bost milioi euro batzea. Hori guztia izan dugu hizpide Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendariarekin. Arrasate Irratian Aitziber Aranburuzabalak eta Mari Agirrek egindako elkarrizketa jaso dugu.

AINTZANE IRIZAR

**Momentu honetan, proiektu berrian buru-belarri zabiltzate lanean, ezta?**

*Egunkaria* itxi aurretik ere horretan ari ginen; itxi eta berehala, berriz, gure langileek gaitasuna izan zuten hurrengo egunean *Egunero* egunkaria argitaratzeko, nahiz eta Administrazio Kontseiluko presidentea, idazkaria, kontseilari nagusia eta egunkariko zuzendaria atxilotuta egon. Kemen horrekin jarraituta, egunero-egunero kaleratu dute egunkari hori, eta beste hainbat langile beste mila kontutan ibili dira, *Euskaldunon Egunkaria*-ren kontra egindako astakeria hori gizarteratzeko: dirua batzen, herrietako batzordeak antolatzen, kamisetak egin eta saltzen...

**Oraingo astean iragarri duzue ekainerako kalean egongo dela egunkari berria; ez da goiz?**

Ez, ez; zergatik da, bada, goiz? Guk bagenekien egunkariak egiten *Egunkaria* itxi eta gu atxilotu aurretik. Azken baten, egunkari bat egiteko behar dena da giza programa on batzuk, programa informatiko on batzuk eta diru pixka bat oinarrizko tresnak erosteko: ordenagailuak eta mahaiak erosteko, egoitza batzuk edukitzeko... Hortaz, ez dut uste goiz denik; gainera, uste dut jendearen aldetik badagoela gogoa ahalik eta azkarren egunkari handi, sendo, kalitatezko eta erreferentzial bat topatzeko kioskoetan. Badakigu *Egunero* ahalegin handi baten ondorioa dela, baina ez da nahikoa. Berandu denik ere ez dut esango, baina, adibidez, orain hauteskundeak izanda, pena da hauteskunde horien garaian gu ez egotea egunkari sendo eta handi batekin. Hori *handicap* bat da gero merkatuan, kioskoetan, gainerako egunkariekin lehiatzeko.

**Orain, dirua batzea da zuen erronka nagusia.**

Bai, halaxe da; proiektu hauek gero eta garestiagoak dira eta geure buruari jarri diogun helburua da Euskal Herri mailan bost milioi euro (800 milioi pezeta) lortzea. Katalunian izan dugun harrera ikusita, oso serio ari gara pentsatzen han ere kanpaina sendo bat egitea; ez bakarrik lagun batzuen laguntza jasotzeko, baizik eta milaka katalanen laguntza lortzeko. Baina, jakina, gure lehentasun nagusia Euskal Herria da eta hemen jarriko dugu abian kanpaina, herri batzorde askoren laguntzarekin.

**Erraza izango da diru hori guztia lortzea? Zelan ikusten duzue?**

Erronka bat da, eta gure buruari erronka hori jarri izanak ez du esan nahi diru guztia egunkari berria atera baino lehenago batuko dugunik. Helburua da datozen hilabeteotan lortzea diru hori. Dena dela, nik uste dut lor dezakegula. Euskal Herriak badauka horretarako gaitasuna; gainera, jendea oso haserre dago *Egunkaria*-ren itxierarekin eta nik uste dut haserre hori orain zerbait positiboa egiteko erabili behar dugula eta diru hori batzeko gaitasuna erakutsi.

**Lan honekin guztiarekin langileak eurak hasi ziren lehenengo. Euskarazko Komunikazio Taldea sortu dute 151 langilek. Dena dela, edozeinek izango du akzioren bat erosteko aukera?**

Akzio bat eta gehiago ere. Bi akzio mota jarri ditugu: batetik, 50 eurokoak, diru asko ez daukatenendako eta norbanakoendako; bestetik, 300 eurokoak, diru gehiago daukatenendako; akzio horiek gehiago dira elkarteek, erakundeek, eskoletako klaustroek eta horrelakoek eros ditzaten. Jakina, bakoitzak akzio bat baino gehiago eros dezake, eta eskertuko genuke ahal duenak horixe egitea. Muga ere badago, %1,2 baino gehiago ezin du inork eduki, proiektuaren jite herritarra babestu nahi dugulako.

Bide batez, Debagoieneko herri batzordeetan lanean dihardluten guztiei eskerrak emateko aprobetxatu nahiko nuke, euren laguntza barik proiektu berri hau aurrera ateratzea ezinezkoa izango litzatekeelako.

**Zein izen izango du egunkari berriak?**

Izen polita, biribila, erakargarria, gauza asko batera esango dituena, baina ezin dizuet oraindik izenik esan, erabaki barik dago-eta.

**Produktua bera, baina, aurrekoaren nahiko antzerakoa izango ei da.**

Bai; ez dago motiborik pentsatzeko oso ezberdina izango denik. Azken baten, gu gustura geunden egiten ari ginen egunkariarekin. Nik uste dut nahiko lan polita egiten ari ginela: bageneukan ekonomiaren gaineko gehigarria; unibertsitatearen gaineko beste bat, Euskal Herriko prentsan bakarra; umeendako gehigarria ere bageneukan, *Txingola*, hura ere bakarra Euskal Herriko prentsan; hor zegoen mendiaren gaineko *Mundumira* gehigarria ere... Jakina, aldaketa batzuk egiteko aprobetxatuko dugu, sailen ordenan eta diseinuan, batez ere. Diseinuan, esaterako, erabateko aldaketa egingo dugu; izan ere, egunkari berri baten itxurarekin atera nahi dugu. Zoritxarrez, astelehenetan ezin izango dugu atera, parametro ekonomikoak aldatzen ez diren bitartean.

**Dirua batzeko abiatuko duzuen kanpainaren leloak zera dio: "Independenteagoa ez da erraza; pluralagoa, zein bezain plurala? Eta hobea? Hoberena zen. Baina, hobetuko dugu zure laguntzarekin".**

Lelo horrekin probokatu egin nahi izan dugu. Hori da gero zuek galde dezazuen ea hoberena zen edo ez zen, eta horrelakoak. Gauza askotan hoberenak ginen, nazioarteko informazioan ez dago gu baino egunkari hoberik Euskal Herrian; barkatuko didate gainerako egunkariek. Beharbada, edukazio txarrekoa izango da nik esatea, baina lehengoan, unibertsitateko katedradun batek ekitaldi publiko baten esan zuen *Egunkaria* zela, zientzia eta teknologiari dagokionez, hoberen informatzen zuena. Gaizki dago nik esatea, baina nik uste dut oso egunkari txukuna, duina egiten ari ginela. Egunkari hobea egingo dugu, hobe daitekeelako eta lehen ere etengabe hobetzen ari ginelako urte batetik bestera. Europako hizkuntza gutxituetan argitaratzen diren egunkarien artean, jendearen begietako ninia zen *Euskaldunon Egunkaria*.

***Egunkaria*-ren itxierak oihartzun handia izan du atzerrian ere. Lehen, esaterako, Katalunia aipatu duzu. Oraingo egubakoitzean, bestalde, BBC telebista kateak erreportaje bat emitituko du.**

Halaxe da, bai; lehengo egunean etorri zitzaizkigun BBCkoak. Bazeramatzaten egun batzuk Euskal Herrian, *BBC World*-erako erreportaje bat egiten, eta tartean *Egunkaria*-ren itxieraren gainean ere jardungo dute. Elkarrizketa ere egin zidaten. Badakizue, gero, esandakoaren laurdenaren laurdena azaltzen dela telebistan, baina nik uste dut horrelako aukerak aprobetxatu egin behar direla; izan ere, mundu osoan ehunka milioi ikusle dituen kate baten euskarazko egunkari bakarra itxi digutela adierazteko aukera emango digu erreportaje horretan azaldu izanak.

Dena dela, horren aurretik munduko beste hainbat komunikabidetan ere azaldu da *Egunkaria*-ren aurkako operazio hori: *The Guardian*, *Times*, *Los Angeles Times*... Oihartzun handia izan du, bai, operazio honek.


gaztemenuak
preziogazteak
TABERNA-BERRI
JATETXEA
aste buruetarako gazte menuak
egin zure aukera
Durana kalea 26
Tel.: 943 79 20 67
943 79 49 41
Posta-e:tabernaberri@terra.es
ARETXABALETA


e-debagoiena
ETORKIZUNA HURBILTZEKO
TE ACERCAMOS EL FUTURO
Familiako kide bat gehiago.
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Euskaltel
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Kultura
eta
aisialdia

Maiatzaren
9tik 16ra

# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 9a




Gatz Museoa abian zegoen lehendik ere; dendak eta Turismo Bulegoak osatu egiten dute.



Labidea dendaren inaugurazio ekitaldiaren une bat; apirilaren 1ean izan zen.

# Gatzagaren etorkizuna turismoaren bidetik dator



Turismo Bulegoa 09:00etatik –asteburuetan 11:00etatik– 20:00etara dago zabalik.

**Gatz Museoa, herriaren iragan historikoaren ondarea bisitariei eta debagoiendarroi gogora ekartzeko; hori zen Leintz Gatzagaren turismo eskaintza nagusia. Baina orain, eskaintza hori aberastu eta sendotzeko, Labidea denda eta Turismo Bulegoa daude Gatzagan, eta horiekin Udalak apustu garbia egin du herriaren etorkizuneko proiektuetariko baten alde: hain zuzen ere, Leintz Gatzaga turistendako geroago eta herri erakargarriago eta zerbitzuz hobeto hornituago bihurtzea.**

Denda bat zabaltzea ez da aparteko gertakizun izaten; ez eta turismo bulego baten martxan jartzea ere. Bai, ordea, zabaltzen dena herriko denda berri bakarra denean. Horixe da Labidea dendaren kasua, Leintz Gatzagan. Herriko Turismo Bulegoari dagokionez, esanguratsua da Gatzagaren kasua, Debagoieneko hirugarren turismo bulegoa dela kontuan hartzen badugu, Bergarakoaren eta Oñatikoaren ondoren.

Labideak apirilaren 1ean zabaldu zituen ateok. Aurretik, ordea, inaugurazio ekitaldia izan zen; seguruenik, Gatzagako ekitaldi jendetsuenetarikoa azken boladan; izan ere, herritarrak erruz hurreratu ziren zerbitzu berriari onespena adieraztera. Eta ez zen gutxiagorako. Kontuan hartu behar dugu bazirela urteak gatzagarrek ez zutela herriko bertako dendarik: bost urte, hain zuzen ere. Apiriletik hona gatzagarrek badute esnea, ogia, egunkaria… herrian bertan erosteko aukera. Ez hori bakarrik, ordea: Labideak ia denetariko produktu bikainak eskaintzen dizkie bezeroei, eta guztiak ere, Debagoieneko enpresek eta egileek ekoiztutakoak.

Labidea denda eta Gatzagako Turismo Bulegoa zabaltzea, berez, oso berri esanguratsua da, ikusten denez. Baina are garrantzi handiagoa hartzen du Leintz Gatzagak bere etorkizunerako planen barruan ikusten badugu. Izan ere, dendak eta Turismo Bulegoak osatu egiten dute lehendik abian zegoen Gatz Museoa. Guztiek bokazio berbera dute: gatzagarrei ez ezik, bisitariei ere zerbitzu ezin hobea eskaintzea, eta, era horretan, Leintz Gatzagako etorkizuna bere turismo eskaintza geroago eta sendoagoan oinarritzea.

/AINTZANE GARDOKI-LEIRE KORTABARRIA

AZALA: GOIO ARANA / ARGAZKIAK: AINTZANE GARDOKI


Joxe Joan González de Txabarrirekin
Gipuzkoa beti aurrera.
Bozkatu eraginkor.
eusko alkartasuna
EAJ PNV


Sekulako likidazioa hasi da!
Arropak 1 eurotik 15 eurora
Zapatiletan %50etik %70erainoko deskontua
OKENDO KIROLAK
ARRASATE

ZERBITZUAK/ **TURISMO BULEGOA ETA DENDA, LEINTZ GATZAGAKO BALIABIDE BERRIAK**

# Debagoieneko herri txiki handia

GATZ MUSEOAREN PROIEKTUAREN BARRUAN, TURISMO BULEGOA ETA PRODUKTU BARIATUEN DENDA ZABALDU DITUZTE GATZAGAN

A. GARDOKI / L. KORTABARRIA

**Hiru ardatzen gainean gauzatu den proiektu bateratua: horra hor zer osatzen duten Gatzagako Gatz Museoak eta, apiriletik hona, baita Turismo Bulegoak eta Labidea dendak ere. Azken biak apirila ezkero daude zabalik, eta dagoeneko aldatu dute herriko bizimodua.**

"Erronka", "etorkizuna", "zerbitzua" eta horrelako berbak darabiltzate Leintz Gatzagako Udaleko arduradunek eta Labidea dendako, Turismo Bulegoko eta Gatz Museoko kudeatzaileek, zerbitzuok zer dakarten azaltzeko.

Poza sumatzen zaie turismo eta zerbitzu proiektu bateratua aurrera atera dutenei, eta ez da gutxiagorako; izan ere, Leintz Gatzaga bezalako herri batendako aurrerapauso handia izan da hain denbora laburrean bere eskaintza horrenbestean aberasten duten bi zerbitzu abian jartzea. Martxoaren 27an izan zen bien inaugurazio ekitaldia, nahiz eta apirilaren 1ean ireki ateak.

**INPLIKAZIO PERTSONALA**

"Herritarrak oso pozik daude dendarekin, igartzen zaie", diosku Amaia Olabe hiru zerbitzuotako kudeatzaileetariko batek. Aretxabaletar horrek eta Aitziber Gorosabel arrasatearrak dute orain museoaren, bulegoaren eta dendaren ardura, Udalak deitutako lehiaketa irabazi zuten-eta. Lehiaketa hura joan den otsailean izan zen, Gatzagako udalbatzak abenduan deialdia egitea onartu ondoren. Hasieratik geratu zen argi Udalarendako zenbaterainoko garrantzia izango zuen dendaren, Turismo Bulegoaren eta lehendik abian zegoen museoaren proiektuak: "Proiektu horrek erabateko garrantzia du guretako: museoa gure ondasun kulturalaren ispilua da, eta hori munduari erakutsi gura diogu; bestetik, oinarrizko produktuen denda berriro ere eskaintzeari ezinbestekoa deritzogu…", izan ziren Gatzagako alkate Joxerra Agirreurretaren berbak.



AINTZANE GARDOKI

**Oinarrizko produktuak erosteaz gain, kafetxoa eta pintxoak hartzeko modua dago Labidea denda berrian.**

Aitziber Gorosabelek eta Amaia Olabek argi izan zuten hasieratik erronka horri eutsi gura ziotela. Museoan lanean hasi zirenetik urte bitik gora pasatu dira, eta ordura arte "oso gustura" zebiltzan biak. Hala ere, honakoa dioskute Aitziberrek eta Amaiak: "Guretako proiektu hau aurrera ateratzea erronka pertsonala zen. Ilusioa eta lanerako gogoa ez zaizkigu falta". Kontuan hartu behar da biek gauza berri moduan hartu zutela lan hori, eta lehengo lanak utzita eutsi ziotela erronka berri horri. Argi dago horrelako proiektu bat aurrera eramateko, eta arrakastaz, gainera, profesionaltasunaz gain inplikazio pertsonala ere ezinbesteko dela.

**BERTAKOENDAKO ETA KANPOKOENDAKO**

"Gatzagaren etorkizuna turismotik dator, gure iritziz. Gure nahia herria ezagutzera ematea da, eta horri erantzuteko gertu egotea", dioskute Amaiak eta Aitziberrek. Eta etorkizun horri begira, Leintz Gatzagako zerbitzuak aberastea da Labidea dendaren, Turismo Bulegoaren eta museoaren bokazioetako bat.

Baina ez bakarra; izan ere, lehenik eta behin gatzagarrendako eurendako zerbitzua dira, batez ere, Labidea denda. Baziren bost bat urte Gatzagan ez zegoela oinarrizko produktuak erosteko dendarik, eta herritarren artean "demanda hori zegoen", diote arduradunek.

Ogia, esnea, egunkaria… erosteaz gainera, baina, Labidea dendan denetariko produktuak aurkituko dituzte bertakoek eta kanpokoek: saskiak, zeramikak, bitxiak, eta abar.

## Herriko historia

Izena bera iraganeko jarduera nagusitik datorkio Leintz Gatzagari; horrek egoki adierazten du gatzaren ekoizpenak zenbaterainoko garrantzia izan zuen, eta oraindik ere baduen, herrian.

Gatza ekoizteari 60ko hamarkadan utzi zion Leintz Gatzagak, baina mendeotako lanbide horren ondarea jaso eta erakusteko, Gatz museoa zabaldu zen 2000ko irailean. Ordutik hona, sendotuz joan den turismo eskaintza bilakatu da museoa, Aitziber eta Amaia arduradunen esanetan: "Geroago eta bisitari gehiago ditugu; batez ere, udan".

Merezi du Gatzagako urre zuriari eskainitako museoa bisitatzeak, herriko eta baita Debagoieneko jarduera historiko horren gaineko informazioa jaso eta lanabesak ikusteko. Burdin Arotik aprobetxatzen zuten hango biztanleek ur gazi iturri naturala, eta orduko arrasto arkeologikoak ikus daitezke museoan. Horrez gain, Pater Noster izeneko igotze sistema duen txanbilezko gurpil bat ere badago, besteak beste.

## Eskaintza sendoagoa

Gatzagako Turismo Bulegoak 29 m² ditu, eta azalera hori nahikoa du ibarretik zein kanpotik etortzen diren bisitari guztiei informazio eta erraztasun guztiak emateko. "Gatzagaren gaineko informazioa banatzen dugu, herria leku turistiko gisa bultzatzeko. Orain, txoko eta ibilbide ugari batzen dituen esku-orriak ditugu banatzeko. Beste herri batzuetako turismo bulegoekin harremana estutuko dugu, gure herria eta ibarra ezagutzera emateko", azaltzen du Amaia Olabe kudeatzaileak.

Turismo bulego bat abian jartzearen helburu nagusia da Leintz Gatzagako turismo eskaintzari ahalik eta probetxu handiena ateratzea: "Aurrerantzean, bisitariei eta taldeka datozenei, museoa bisitatzeaz gain, Dorletako Santutegia eta herria bisitatzeko aukera eskainiko diegu", esaten dute arduradunek.

Bulegoaren ordutegia hau izango da: astean barrena, 09:00-13:00 eta 16:00-20:00; eta aste bukaeretan, 11:00-14:00 eta 16:30-20:00.

## Dendan, ia denetarik

Ogia, egunkaria, esnea eta oinarrizko beste produktu batzuk herrian bertan eros dezakete orain gatzagarrek. Baziren urteak herriak ez zuela horrelako zerbitzu bat. Eskaintza horrez gain, lasai-lasai kafetxoa hartzen eserita egoteko txoko atsegina ere badute han herritarrek: "Edozein etxetan behar diren gauzak izango ditugu, eta kafea eta pintxo ederrak ere eskaintzen ditugu egunero. Badakigu herritarrak ez dituela gurean egingo asteko erosketak, baina produktu batzuk erosteko aukera badute, eta kafetxoa hartzeko aukera", dio Aitziber Gorosabelek. Umeek ere badute zer erosi: orain arte ez bezala, litxarreriak erosi ahal izango dituzte.

Baina hori baino gehiago ere bada Labidea; izan ere, turismoari lotutako komertzioa da: "Gure asmoa da kalitatezko produktu bariatuak eskaintzea bisitariei", dio Amaia Olabek. Horrela bada, Jakion edo Lur Lan enpresetako produktuak, eta artisautzako lanak ere badaude aukeran Labidea dendan.

# Maiatzak 9-16

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## DEIAK

### ANTZUOLA

► ***La vieja herida* izeneko liburua** aurkeztuko du Floren Aoizek gaur, egubakoitza, udaletxean, 19:15ean.

► **Gerbasio Legorbururi omenaldia** egingo diote etzi, domeka. 10:00etan hasiko dira ekitaldiak.

► **Oiartzungo Arditurri meategietara irteera** antolatu du Arrola elkarteak hilaren 18rako, domeka.

### ARAMAIO

► ***Aramaioko Euskara* liburua** aurkeztuko dute bihar, zapatua, kultura etxean, 12:30ean. Txipi Ormaetxea egilea eta udal ordezkariak izango dira.

► **Eskola garraiorako dirulaguntzak** banatuko ditu Udalak DBH, HSAOG (LOGSE), erdi edo goi mailako heziketa zikloak edo Unibertsitate ikasketak egiten dabiltzanendako. Eskaera egiteko azken eguna maiatzaren 23a izango da, udaletxean.

### ARETXABALETA

► ***Relación de ayuda al enfermo terminal y su familia* hitzaldia** egingo du Millán Viñas apaizak martitzenean, hilak 13, Parrokiako aretoan, 19:30ean, Arrasateko Osasun Pastoraltzak antolatuta.

► **Txinaren gaineko diaporama** egingo du Jon Abrilek hilaren 15ean, eguena, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

### ARRASATE

► **Herri Urrats jaialdira joateko** autobusak antolatu ditu AED elkarteak.

► **Helduen Hezkuntza Ikastetxeak** maiatzeko aurrematrikula epea zabaldu du. Jo ikastetxera, (Ferrerias, 28B), edo deitu 943 77 11 72 telefonora.

► **Arrasate-Oñati lasterketa** izango da bihar, zapatua. Izena emateko, joan egunean bertan Arrasateko Garibai pasealekura, 18:15ak arte, edo Oñatiko plaza nagusian, 17:00ak arte.

► **San Juan jaietako danborradan** parte hartu gura dutenek SUDC elkarteak Pablo Uranga kalean duen egoitzara jo beharko dute. Entseguak bihar, zapatua, hasiko dira.

### BERGARA

► ***Ahozko hizkuntzatik abiatuta pozik eta gustura irakurtzea* hitzaldia** antolatu du Euskal Idazleen Elkarteak hilaren 15erako, eguena. Kultura etxean izango da, 19:00etan.

► **Gaztetxoen arteko III. Olinpiadak** antolatu ditu Jardun elkarteak. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 36 61 telefonora (Nekane).

### DEBAGOIENA

► **Udal hauteskundeetan postaz bozkatzeko** aukera dela-eta, oharra kaleratu dute hainbat alderdik. Hain zuzen ere, EAJ eta EA alderdiek. Bideratzeak egiteko epea zabalik dago, eta hala egin nahi dutenek EAJren Batzokira edo EAren Alkartetxera jo beharko dute argibideetarako.

### ESKORIATZA

► **Euskararen kale erabileraren neurketa** egin dute, eta emaitzak aurkeztuko dituzte astelehenean, hilak 12, kultura etxean, 19:00etan.

► ***Lurreko basamortuak* diaporama saioa** izango da hilaren 13an, martitzena, Juanito Oiartzabal mendigoizalearen eskutik, kultura etxean, 19:00etan.

► ***Cómo acompañar al enfermo y su familia* hitzaldia** egingo du Marije Goikoetxea adituak eguaztenean, hilak 14, kultura etxean, 19:00etan, Arrasateko Osasun Pastoraltzak antolatuta.

### OÑATI

► **Herri Urrats jaia** izango da etzi, domeka, Senperen, eta Laixan elkarteak autobusak antolatu ditu hara joateko. Argibideetarako, deitu 943 71 63 11ra.

► ***El sufrimiento en la vida humana* hitzaldia** egingo du Pablo Anduaga adituak astelehenean, hilak 12, Parrokiako aretoan, 19:00etan, Arrasateko Osasun Pastoraltzak antolatuta.

► ***Heriotza gaur egungo heziketan* hitzaldia** egingo du Patxi Izagirre psikoterapeuta eta psikologoak maiatzaren 14an, eguaztena, Txantxiku Ikastolako areto nagusian, 18:30ean.

## ERAKUSKETAK

### ANTZUOLA

► **Gerbasio Legorbururen** omenezko erakusketa izango da bihar eta etzi, Olaran etxean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara.

### ARRASATE

► **Martxoaren 3ko sarraskia** gogora ekartzeko erakusketa dago ikusgai Monterron kultura etxean.

## MUSIKA

### BERGARA

► **Anastua Jazz Perku Band** taldearen emanaldi bi izango dira bihar, zapatua, Gorlako kantinan, eguerdian eta 22:30ean.

► **Techno jaialdia** izango da bihar,





Koloretako ploteoak, mugarik gabeko neurrietan eta plastifikatuta, luma-kartoian jarrita edo display-rik egokienetan.

Atai
Telf.: 943 79 81 66
E-mail: atai@vianwe.com
ARETXABALETA

HAURRENTZAKO MASAJE IKASTAROA
Urte 1era bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua

• LASAITZEKO
• HOBETO LO EGITEKO
• KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO
• UMEAREKIN KOMUNIKAZIO AFEKTIBOA SENDOTZEKO
• INMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO

ANTOLATZAILEA
MUGI, Psikomotrizitate Prebentzio eta Laguntza Zentroa
TOKIA
Araba etorbidea 3, 2-3.atea
EGUNAK
• Maiatzaren 15, 22, 29 eta ekainaren 5 eta 12
ORDUA
10:30etatik 12:00etara
INFORMAZIOA
MUGI ZENTRUAN 943 77 08 05



Luko
Gizonak
Emakumeak
JANTZIAK
Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12
Ibai-arteren bazkide
ibai-arte




► KONTZERTUAK

### MIKEL URDANGARINEN EMANALDIA, GAUR, ESKORIATZAN

Eskoriatzako Udalak lehen mailako talde eta abeslariak ekarri ditu herrira azken urteotan: Benito Lertxundi, Oskorri, Pantxoa eta Peio… Eta gaur, maiatzak 9, Mikel Urdangarin kantautoreak egingo du emanaldia. Musikagile zornotzarrak *Heldu artean* bere bosgarren diskoko abestiak eskainiko ditu, batez ere, gaurko kontzertuan. Lan berri horretan folk akustikoaren bidetik segitzen du, nahiz eta bere alderdi hiritarrena erakustea ere aukeratu duen. Kantu gehienak Mikelek berak idatzi ditu, eta horien artean katalanez abestutako bat ere badago. Diskoa 2002ko udan grabatu zuen, eta orain zuzenean gozatzeko aukera izango dugu, Eskoriatzan.

**Non:** Eskoriatzako kiroldegian. **Noiz:** maiatzaren 9an, egubakoitza. **Ordua:** 22:30ean.



**‘BIBLIA OSOA... GUTXI GORABEHERA’**

Izenburu hori duen umorezko antzezlana eskainiko dute Kanpingags eta Txalok gaur, egubakoitza, Aretxabaletako kiroldegian, 22:30ean. Teologo xelebre batzuk dira protagonista nagusi, aktore ezagunak guztiak ere: Joseba Apaolaza, Mikel Laskurain, Patxi Barco…

zapatua, Jam aretoan, 00:00etan. Disko-jartzaileen artean Kaiet arrasatearrak jardungo du.

► **Children of Bodom, Soilwork eta Shadows Fall** taldeen kontzertua izango da etzi, domeka, Jam aretoan, 19:00etan.

► **Turbonegro eta Division of Laura Lee** taldeen emanaldia izango da datorren eguenean, hilak 15, Jam aretoan, 21:00etan.

► **S.A., Hamlet eta Jacky Trap** taldeek kontzertua eskainiko dute hilaren 16an, Jam aretoan, 22:00etan.

### ELORRIO

► **Aretoko II. Break-dance Lehiaketa** izango da bihar, zapatua, Arriola aretoan, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► **Udaberriko Kontzertua** eskainiko du Musika Eskolako Bandak etzi, domeka, Herriko Plazan, 13:00etan.

► **Amaraun jazz taldearen** emanaldia izango da maiatzaren 16, gaztetxean, 22:00etan.

### OÑATI

► **Arkada Social, Jodete eta Afonia** taldeen saioa izango da gaur, egubakoitza, San Anton plazan, 22:30ean.

► **Discipulos de Dionisos eta Barley Juice** taldeen kontzertua izango da bihar, gaztelekuan, 22:30ean.

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► ***Chi-kung* hastapen ikastaroa** antolatu du Sadhana yoga eta psikoterapia zentroak. Argibideetarako, deitu 943 71 41 91 telefonora.

### OÑATI

► **Txalaparta eta zeramika ikastaroak** antolatu ditu Elkar-Hezi ikastetxeak. Argibideetarako, deitu 943 78 28 70 telefonora.

## JAIAK

### ARRASATE

► **Corazon de Encina** elkarte extremadurarrak Kultura Astea ospatuko du etzitik aurrera, domeka. Domekatik datorren zapatura bitartean, arratsalde partean, egunero egongo da ekintzaren bat euren egoitzan: dantzaldiak, erakusketak, lehiaketak…

### OÑATI

► **San Migel Txiki jaiak** izango dira gaurtik etzira bitartean. Gaur, txorimaloak eta gazta eta ardo dastatzea egongo dira; bihar, zapatua, mokadua, Mus Txapelketa, jolasak, Futbito Txapelketa, txorimaloak eta erromeria; eta etzi, meza eta dantzaldia, besteak beste.

# Zinema

### ARRASATE

**■ ALAI ZINEMA**

***Sucedió en Manhattan***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

**■ AMAIA ANTZOKIA**

***Kamchatka***
Eguena, zine kluba: 21:30.

### BERGARA

**■ NOVEDADES**

***Chicago***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

***El sueño de Valentín***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

**■ OÑATIKO ZINEA**

***Recién casados***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Pluto Nash***
Domeka: 17:00.

### EIBAR

**■ UNZAGA**

***Antwone Fisher***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

**■ RIALTO**

***X-Men 2***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik martitzenera: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

**■ GURIDI**

***Sucedió en Manhattan***
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

***X-Men 2***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Johnny English***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00.

***El cazador de sueños***
Egunero: 22:30.

***Sin motivo aparente***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00.

***Generación robada***
Egubakoitzetik domekara: 22:30.

***En la oscuridad***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Mi vida sin mí***
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:30.

***Vidas contadas***
Zapatua eta domeka: 22:30.

***Aquellas juergas universitarias***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

**■ MIKELDI ZINEMAK**

***El cazador de sueños***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00.

***Tiempo de tormenta***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Besos de gato***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

***Johnny English***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Frida***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

***Aquellas juergas universitarias***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***La última noche***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

***X-Men 2***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Antwone Fisher***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

**■ FLORIDA-GURIDI**

***Torremolinos 73***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Bowling for Columbine***
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

***Palabras encadenadas***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 22:30.
Zapatua: 22:30.

***La vida mancha***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Los novios búlgaros***
Egubakoitza eta domeka: 20:00.

***My kingdom***
Zapatua eta domeka: 17:30.

***Cualquiera***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Mi mujer es una actriz***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***El lápiz del carpintero***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

**■ STER ZINEMAK**

***En la oscuridad***
Egubakoitza: 18:10, 20:00, 22:00, 00:10.
Zapatua: 16:20, 18:10, 20:00, 22:00, 00:10.
Domeka: 16:20, 18:10, 20:00, 22:00.

***Sucedió en Manhattan***
Egubakoitza: 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

***La prueba***
Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 22:35, 00:55.
Domeka: 20:10, 22:35.

***Dog soldiers***
Astelehenetik eguenera: 18:10, 20:20, 22:30.

***Los rebeldes de Shangai***
Egubakoitza eta zapatua: 20:05, 22:30, 00:55.
Domeka: 20:05, 22:30.

***Johnny English***
Egubakoitza: 18:05, 20:00, 21:55, 00:00.
Zapatua: 16:10, 18:05, 20:00, 21:55, 00:00.
Domeka: 16:10, 18:05, 20:00, 21:55.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza: 18:35.
Zapatua eta domeka: 16:55, 18:35.

***Destino final 2***
Egubakoitza eta zapatua: 20:15, 22:10, 00:05.
Domeka: 20:15, 22:10.

***X-Men 2***
Egubakoitza: 19:40, 22:20, 01:00.
Zapatua: 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:40, 22:20.

***Los Thornberrys***
Egubakoitza: 18:15.
Zapatua eta domeka: 16:25, 18:15.

***El oro de Moscú***
Egubakoitza: 18:25, 20:35, 22:45, 01:05.
Zapatua: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45, 01:05.
Domeka: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45.

***Spirit***
Egubakoitza: 18:20.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:20.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

**■ YELMO CINEPLEX**

***En la oscuridad***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

***Johnny English***
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25.

***El oro de Moscú***
Egubakoitza eta zapatua: 20:20, 22:20, 00:25.
Domeka: 20:20, 22:20.

***Mi casa es tu casa***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***Destino final 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:35, 00:20.
Domeka: 12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:35.

***Mi mujer es una actriz***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***El cazador de sueños***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 18:30, 221:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 19:00, 22:00.

***Antwone Fisher***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:50, 20:05, 22:25, 00:40.
Domeka: 12:15, 15:30, 17:50, 20:05, 22:25.

***El último golpe (Heist)***
Egubakoitza eta zapatua: 20:45, 22:45, 00:50.
Domeka: 20:45, 22:45.

***Los rebeldes de Shangai***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:15, 20:30, 22:40, 00:45.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:15, 20:30, 22:40.

***Pacto de brujas***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:35.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:35.

***Recién casados***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:20.
Domeka: 12:15, 16:20, 18:20.

***Sucedió en Manhattan***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:20, 20:25, 22:30.

***Palabras encadenadas***
Egubakoitza eta zapatua: 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 20:05, 22:05.

***Sin motivo aparente***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:00, 18:30.
Domeka: 12:15, 15:30, 17:00, 18:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Chicago:* ●●●● | *Kamchatka:* ●●●● | *Mi vida sin mí:* ●●● | *El último golpe (Heist):* ●●**

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### BOWLING FOR COLUMBINE

PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Michael Moore.
**AKTOREAK:** Dokumentala da.

